

DIRU SARRERAK

Gure bezeroak badakite guk kalitatezko materialekin eginezko produktuak saltzen ditugula, horregatik prest egongo dira boten prezioak ordaintzeko. Hasieran bota modelo bakarra aterako dugu merkatura kolore desberdinetan eta 169 euroko prezioa izango dute. Umeentzako tailetan ere eskuragarri izango dira bota kalefaktableak 34 zenbakirarte 119 euroko prezioan

PROMOZIOAK

Merkatura ateratako lehen astean promozio bat edukiko dugu, %10 eko deskontua bezero guztientzat. Horrez gain beste promozio batzuk egingo ditugu, adibidez "Black Friday"-egunean eta urtarrileko beherapenetan.

Bestalde, beste diru iturri bat edukiko dugu, hileroko harpidetza. Hilean 5 euro ordainduz gure harpidetu klubean sartzeko aukera izango du bezero orok. Hainbat abantaila izango ditu adibidez erosketa denetan %30 eko beherapena eta urtean behin gure markako erropa sorta bat oparituko diegu.